

1/15

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen
Lege Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2015ko otsailaren 25ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. SARRERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Herri Administrazio eta Justizia Sailaren idazki bat erregistratu zen 2015ko urtarrilaren 16an. Idazki horren bidez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege Aurreproiektuari”* buruzko informazioa eskatu zuen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Galdetu diguten legegintzako ekimenak bi helburu ditu: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 25eko 12/1994 Legeak gaur egun araututako gaiari buruzko arautegia sektore honetan aurre egin behar zaien gizarte-errealitate berriak kontuan hartuz eguneratzea; bestetik, indarrean sartu zenetik igarotako hogeitun urteen zehar gertatutako egokitzapenak arau bakar batean sartzea.

Berehala bidali genien Batzordeko osoko bilkurako kide guztiei Dokumentu horren kopia, beraien proposamenak eta iritziak bidal zituzten, eta guk horiek guztiak dagokion Lan Batzordeari bidal geniezazkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraituz. Gizarte Garapeneko Batzordea 2015eko otsailaren 11n bildu zen, eta hartutako erabakiak kontuan hartuz, Irizpen Proiektu hau egin zuen, Batzordeak otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran aurkez zezan. Bilkura horretan aho batez onartu zuten.

II.- EDUKIA

“Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege Aurreproiektuaren” testuak 65 artikulua ditu, hiru kapitulutan, hamahiru ataletan, lau xedapen gehigarritan, bi xedapen iragankorretan, xedapen indargabetzaile batean eta hiru azken xedapenetan banatuta.

Zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legeak aurrerapen nabarmena ekarri bazuen ere, askatasun, erantzukizun eta malgutasun irizpideen arabera fundazioen funtzionamendua arautuz, orduan zegoen erregulazio murriztaileko ereduaren aurrean, gaur egun, fundazio mota berrietara egokitzen den eta testu bakar batean horiei buruzko indarreko araudi guztia jasotzen duen beste arautegi bat behar dugu.

Aurretik adierazitakoaren ildotik, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak, "Omnibus Legea" moduan ezaguna den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren barne-merkatuko zerbitzuei buruzko abenduaren 12ko 2006/123/EE zuzentaraura egokitu daitezzen zenbait lege aldatzen dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legea aldatu zuela adierazi behar dugu. Fundazioen Lege berri horren helburuak arau horren helburu berak dira, hala nola herritarrentzako kalitatezko zerbitzu bat lortzea, administrazio-prozedurak sinplifikatuz, azkartasunez, kalitate onez eta gardentasunez; aurretik baimena eskatzen duten prozesuak kentzea eta horien ordean geroagoko jakinarazpenak edo aitortpen erantzuleak erabiltzea; administrazio kudeaketak arintzeak, beharrezkoak ez direnak kenduz, eta herritarrentzat hain nekezak ez direnak erabiliz.

Oro har, Fundazioen Lege berria beharrezkoa da, eta segurtasun juridikoa emango die bai Herri Administrazioari bai fundazioei eta herritarrei oro har. Lege horretan, erakunde horiei aplikatu ahal zaizkien arauak bateratuko dira, eta aldaketa tekniko nahiz juridikoak egingo dira, fundazioen arautegia aro berrietara egokitu dadin, eta gizartearen gaur egungo eskaera eta beharrei erantzun diezaien.

Fundazioen eredia nabarmen aldatu da urteetan zehar, izan ere, antzinako fundazioak bere ondarearen zati bat ongintzako helburuetarako uzten zuen pertsona ongi batek sortzen zituen, eta gaur egun, askotariko helburu eta egiturak dituzte, hala nola teknologia eta berrikuntzaren arloko fundazioak, sektore publikoko fundazioak, bankuen fundazioak eta abar. Horrenbestez, fundazioen gaur egungo errealitatearekin bat datorren arautegia behar da.

Lehen kapituluak, "Fundazioa" izenekoak, 7 atal eta 46 artikulua ditu. Artikulu horiek, xedapen orokorrei eta fundazioen eraketa, gobernu, ondare, funtzionamendu, jarduera, aldaketa, bat-egite, desegite, desagertze eta eraldaketari buruzkoak dira.

Bigarren kapituluak, "Administrazioaren esku-hartzea eta antolaketa fundazioen arloan" izenekoak, 4 atal eta 15 artikulua ditu. Artikulu horiek, Fundazioen Babesletza eta Erregistroa eta Fundazioen Euskal Kontseilua arautzen dute.

Hirugarren kapituluak, "Fundazio bereziak" izenekoak, 2 atal eta 4 artikulua ditu, sektore publikoko fundazioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko banku-fundazioei buruzkoak.

Xedapen gehigarriak alderdi politikoekin lotutako fundazioei, beste Administrazio batzuen informazio-eskaerei, notarioen betebeharrei (hala nola agiriak Fundazioen Erregistroa bidaltzea) eta genero-berdintasunaren Legeari buruzkoak dira.

Xedapen iragankorrek fundazioen estatutuek gaur egungo Legera egokitu behar dutela ezartzen dute, eta ekainaren 19ko 101/2007. eta 100/2007. Dekretuen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren eta Babesletzaren arautegien indarraldia finkatzen dute, Legearekin kontraesanean ez dauden xedapenetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994. Legea eta lege horretan ezarritakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetu dira.

Azkenik, azken xedapenak, arautegiaren garapenari eta Fundazioen Lege honen indarrean sartzeari buruzkoak dira.

III.- GOGOETA OROKORRAK

I. Arauaren balorazio orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege Aurreproiektuari buruzko gogoeta egin dezagula eskatu digute. Lege horrekin Gobernuak duen helburua 1. artikulua dioena da, hau da: *“fundazioa eratzeke eskubidea arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoak gai horretan dituen eskumenak kontuan hartuz, Autonomia Estatutuaren 10-13. artikuluan ezarritakoaren arabera”*. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 25eko 12/1994 Legeak gaur egun arautzen duen arautegia eguneratuko da, sektore honetan aurre egin behar zaien gizarte-errealitate berriak kontuan hartuz, eta indarrean sartu zenetik igaro diren hogeitun urteetan gertatutako aldaketak arau bakar batean sartuz.

Gogoetak hasteko, fundazioek gure herrian duten eginkizuna goraiatu nahi dugu, hainbat arlotan aritzen direlako: kulturean, gizarte-zerbitzuetan eta osasunean, hezkuntzan eta ikerketan, enpleguaren eta prestakuntzan, ingurumenean eta bestelakoetan. Horri esker, interes orokorreko helburuetan eta gizartea eta ekonomia bultzatzeko helburuetan laguntzen dute. Arrazoi horregatik, aurreproiektuan adierazitako helburuak aintzat hartuz, positibotzat jotzen du batzorde honek galdetu zaion ekimena.

Beharrezkoa ikusten dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen 12/1994 Legea eguneratzea, sektore hau aldi horretan gertatu diren aldaketetara egokitzeko. Hori dela eta, Fundazioen Lege Aurreproiektu honek hainbat arlo eta sektoretako erakundeak aritzen diren esparruaren gutxienezko beharrak arautu behar ditu, gaur egun, ekonomian, teknologian, gizarte-berrikuntzan, gizarte-sektore ahulenak babesten jarduten duten fundazioak ditugulako.

Hori horrela, arautuko diren erakundeak heterogeneoak izan daitezela eskatzen dugu, dimentsioari, tipologiai eta finantzazio-iturriei dagokienez.

II. Aplikazio-esparrua

Legearen aplikazio-esparruari dagokionez, zioen azalpenean adierazitakoaren arabera, 12/1994. Legeari jarraituko zaio, hau da, jarduerak EAEn nagusiki garatzen dituzten fundazioei aplikatuko zaie. Hala ere, berriaz barne hartzen dira beren patronatuaren egoitza eta fundazioaren kudeaketa eta helbidea EAEn dituzten fundazioak ere, *“beren jarduera nagusia atzerrian garatzen badute ere”*, aurreproiektuaren 5. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz.

Baina arau horrek zalantzak sortzen ditu zenbait kasutan, hala nola jarduera nagusia beste autonomia-erkidego batean egiten bada. Egoera hori ez da arautzen, eskumenekin gatazkak sor daitezkeelako 149.1.8 EE artikuluekin (ikus Euskadiko Kooperatiben lehen legeari buruzko KAREN doktrina). Jarduera nagusia atzerrian garatzen denean legea aplikatzen da, baina pentsa liteke aurreikuspen horrek Konstituzioaren aipatutako artikuluen kontra egiten duela.

Horregatik guztiatik, gai horrek segurtasun juridiko eza eragiten duela azpimarratzen dugu.

III. Babesletzaren eginkizuna

Lege-aurreproiektu honek gehiegi azpimarratzen du Babesletzak fundazioak kontrolatu eta fiskalizatu behar dituela, egokiena eta beharrezkoena haiei laguntzea eta aholkatzea bada ere.

Lege-aurreproiektuak, eta 49. eta 54. arteko artikuluek bereziki, organo horretarako aitortutako helburuak gainditzen dituzte, eta zenbait kasutan, horretarako arrazoirik egon gabe, fiskalizatzailea eta esku-hartzailea ere bada.

Adibide moduan, 50. artikulua (Babesletzaren eginkizunak) zuzentzeko eskumen hori ematen die fundazioei, honela ulertuta: *“fundazioa esku hartzea, hala badagokio behin-behineko kudeaketa bere gain hartuta”* edo *“Patronatua osatzen duten pertsonak izendatzea”*. Ez ditu aipatzen eskumen horiek justifikatu beharko lituzketen salbuespenak. Halaber, *“fundazioak zaintzea”* ere aipatzen da, gure ustez, hitz egokia, fundazioaren funtzionamendua *“gainbegiratzea”* bada ere.

Babesletzaren jarduerak prebentziozkoa izan beharko lukeela uste dugu, eta horrenbestez, fundazioak arautzen dituen arautegia bete beharko lukeela. Interes orokorrari eragingo balio eta horrek ondorio eta kalte nabariak izango balitu bakarrik esku hartu beharko luke.

Bestalde, Babesletzak arautzen dituen lege-aurreproiektuaren artikuluei buruzko berariazko gogoetak egingo ditugu dagokion atalean.

IV. Sektore publikoko fundazioak

Zioen azalpenean hauxe esaten da: *“EAEko sektore publikoko fundazioak izango dira lege honetan eta sektore publikoari buruzko arautegian adierazten diren ezaugarriak dituztenak, horien bidez, sektore publikoak kontrolatzen dituela egiaztatzen delako”*.

Gure ustez, paragrafo hori ez dago ongi idatzita eta zalantzak sortzen ditu, ez dakigulako sektore publikoari buruzko zein kontrol eta zein arautegi diren. Egia esan, sektore publikoaren fundazioaren kontzeptua eta haren erregimen aplikagarria nahasten ari dira, eta hori argiago ikusten da fundazio horiek arautzen dituzten 62. eta 63. artikuluetan.

Nolanahi ere, arau hori sektore publikoaren fundazioen araubide juridikoa argitzeko erabili beharko litzatekeela uste dugu: ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeke araubidea, eta fundazio horietako langileen araubidea. Zehazki, fundazioko langileen araubidea zuzenbide pribatukoa dela argitu beharko litzateke, eta hautaketa egitean, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioei jarraitu behar zaiela, deialdien berri emanaz, Estatuko Sektore Publikoaren Fundazioen 50/2002 Estatu Legearen 46.4. artikuluan jasotzen den moduan.

V. Txostenak (ekonomikoa eta azalpenezkoa)

Lehendabizi, gure ustez, lege-aurreproiektuarekin batera aurkeztu den **Txosten ekonomikoa** ondorio moduan jasotzen dena baieztatzeke ez da inola ere nahikoa eragin-azterketa egiteko: *“Ez dago ekimenaren eragin ekonomikorik autonomia-erkidegoaren aurrekontuetan, eta hori dela eta, ezin da horri buruzko programarik edo aurrekontuko partidarik aipatu”*. Hori guztia zenbait arrazoiengatik:

- Indarreko legediaren eskumena kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritza Babesletzaz eta Erregistroaz arduratu behar da. Jarduera horiek administrazio-kargak ekartzen dituzte eta, ziur asko, dagokion sailaren aurrekontuko partidei atxikitako baliabide publikoak erabiltzen dituzte. Ez da zehazten legedi berriak karga horiek murriztuko dituen ala ez.
- Lege-aurreproiektuaren testuaren arabera aurrekontuek aurrekontuko partidetan berariazko eta zuzeneko eraginik ez badute ere, EAEko sektore publikoaren

Fundazioei buruzko 62. artikuluan ezarritakoa ikusirik, ez legoke gaizki egongo baliabide publikoek fundazio horietan gaur egun duten edo izan luketen inplikazioari buruzko azalpen osoagoa bat ematea.

Aurreproiektuaren zioen azalpenean eta azalpen-txostenean adierazten den moduan, fundazioek egindako jardueretan interes orokorra ez dago at; guztiz alderantzizkoa baizik. Beraz, ez zaigu zentzugabea iruditzen Gobernuari “Sektore publikoko fundazioen” arloan dituen konpromisoei edo asmoei buruzko azalpena eskatzea, eta zer eragin eta inplikazio ekonomiko dituzten azal dezala.

- Halaber, erregulazio berriak Fundazioen Euskal Kontseilua sortzea ezartzen du. Kontseilu horrek, baliabideak beharko ditu beren jardueretarako.

Bestalde, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak zenbait irizpenetan adierazitakoaren arabera, **Azalpen txostenak** araua aplikatuko den errealitateari buruzko nahikoa informazioa eman behar du. EAEko fundazioen sektorearen dimentsioaren eta eragindako erakunde kopuruaren (gutxienez, dagoeneko erregistratuta daudenena), jarduera-esparruen, ekonomia- eta gizarte-ordezkarien eta bestelakoen zehazpen bat egin beharko litzateke. Arau horrek fundazioetan zer eragin izango duen ere ez dakigu, edo, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiei laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, zer eragin izango duen enpresetan.

VI. Erabilitako hizkera

Lege-aurreproiektu honetan hizkera sexistaren erabilera berriro ere nabarmendu behar dugu, izan ere, gaztelaniaz, gizonezkoak bakarrik aipatzen ditu: “el fundador o fundadores”, “los beneficiarios”, “el notario”...

Adibide modura, 14. artikulua aipatuko dugu (“Patronatua osatzen duten pertsonak”), behin eta berriz “su Presidente” esaten delako. Deigarria egiten zaigu artikulua honetan patronatuko emakumezko presidentea ez aipatzea, emakumezko idazkariak eta presidenteordeak aipatzen badira. Horrez gain, Lege Aurreproiektuak, laugarren xedapen gehigarrian, hau dio: *“fundazioen organoen eraketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoari jarraitu beharko dio, fundazioen Patronatuan emakumezko eta gizonezko ordezkari kopuru orekatua egon beharreko arauari dagokionean bereziki”*.

Eusko Jaurlaritzak berak IV. Berdintasunerako Planean onartu egiten du *“emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera, askotan, hizkerak indartzen duela”*. Hori dela eta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak arlo eta jakinarazpen guztietan hizkera ez-sexista erabiltzea eskatzen die administrazioei, 18.4. artikuluan hau ezartzen duelako: *“Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan”*.

Horregatik guztiagatik, Lege-aurreproiektuan erabiltzen den hizkera sexista zuzentzea eskatzen dugu.

IV.-BERARIAZKO GOGOETAK

Zioen azalpena

- 2. orrialdea, 2. paragrafoa: Hau dio: *“Xedapen orokorretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen aurreko Legean bezala, fundazioen helburuek interes orokorrekoak izan behar dutela esaten da, baina irabazi-asmorik gabeko erakunde horiek normalean dituzten helburuen zerrenda ireki bat ematen da”*.
Gure ustez ez da egokia “baina” juntagailua erabiltzea, Legeak ezartzen duen zerrenda itxia ez izateaz gain, klausula orokorretik kanpo ere dagoelako. Beraz, paragrafo hau hobeto idatzita egongo litzateke 4. artikuluan (“Helburuak eta onuradunak”) ezarritako irizpideari jarraituko balio.
- 2. orrialdea, 3. paragrafoa: Honela idaztea iradokitzen dugu:

“Legearen jarduera-esparruari dagokionez, 12/1994. Legean bezala ezartzen da, jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan nagusiki garatzen dituzten fundazioei aplikatuko zaiena...”

4.1. art. Helburuak eta onuradunak

Fundazioek interes orokorreko helburuak izan beharko dituztela ezartzen da, eta horien artean, “garapenerako lankidetzatza” aipatzen da.

Uste dugu “garapenerako lankidetzatza eta hezkuntza” aipatu beharko litzukeela, garapenerako hezkuntza ezinbesteko prozesua delako lankidetzarako, eta bere helburua herritarrek garapen-politika eraginkor eta kalitatezko batean parte har eta konpromisoa har dezaten lortzea delako, solidaritatearekin, gizarte-justiziarekin eta giza eskubideekin zerikusia duten eskumenak, balioak eta jarrerak ezagutuz eta garatuz.

5. art. Aplikazio-esparrua

Gogoeta orokorretan arau honen aplikazio-esparruari buruz azaldutakoari bi iruzkin formal gaineratu nahi dizkiogu.

Lehendabizi, artikulua honen lehen atala gaizki interpreta daiteke, hau diolako: *“bere jarduerak EAEn nagusiki egiten dituzten fundaziotzat hartzen dira bere jarduera nagusia atzerrian egon arren, estatutu helbidea erkidego horretan dutenak”*. Gure ustez, nahasterik egon ez dadin, honela idatzi beharko litzateke:

“Bere jarduerak EAEn nagusiki egiten dituzten fundaziotzat ere hartzen dira bere jarduera nagusia atzerrian egon arren, estatutu helbidea erkidego horretan dutenak”

Bestalde, 2. atalean atzerriko elkarte eta fundazioei buruz hitz egiten da, biak bereizi gabe. Gure ustez atzerriko fundazioei buruz hitz egin behar da bi kasuetan.

6. art. Helbidea

Hau ezartzen da: *“Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute beren jarduera lurralde horretan nagusiki garatzen duten fundazioek”, eta “fundazioen estatutu helbidea beren Patronatuaren egoitza duten lekuan egongo da, edo jarduerak nagusiki garatzen dituzten lekuan”.*

Beraz, nahitaezkoa da helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan egotea, baina fundazioaren jarduera nagusia zein den zehazterakoan arazoak sor daitezke.

12. art. Fundazioaren zuzkidura

Lehendabizi, artikuluko honen 1. atalean nahaste bat dagoela uste dugu, ia errepikatzen diren paragrafoak daudelako:

“1.- Zuzkidura edozein motatako ondasunak eta eskubideak izan daitezke, eta fundazioaren helburuak betetzeko egokia eta nahikoa izan behar du. Hasierako zuzkidura nahikotzat hartuko da haren balioa, gutxienez, 30.000 eurokoa bada.

Hasierako zuzkidura hortik beherakoa bada, sortzaileak profesional independente batek egindako azterketa ekonomikoa ere aurkeztuko du fundazioaren eskriturekin eta lehen jarduera-programarekin batera. Azterketa ekonomikoa horren bidez, baliabide horiek bakarrik erabiliz bideragarria dela egiaztatu beharko du.

Hasierako zuzkidura edozein motatako ondasunak eta eskubideak izan daitezke, eta nahikoa eta egokia izan behar du fundazioaren helburuak betetzen direla bermatzeko baliabideak sortzeko. Zuzkidura nahikotzat hartuko da haren balioa, gutxienez, 30.000 eurokoa bada.

Zuzkiduraren balioa hortik beherakoa bada, sortzaileak fundazioaren helburuetarako egokia eta nahikoa dela justifikatu beharko du, lehen jarduera-plana eta azterketa ekonomikoa bat aurkeztuz, aurreikusitako zuzkidura eta finantzazio-baliabideak fundazioaren helburuak betetzeko nahikoak direla egiazta dezan”.

Bestalde, 2. atalean hau dio: *“Hasierako ekarpena ez bada diruzkoa, pertsona aditu independenteek egindako tasazioa aurkeztu beharko du eraketa-eskriturekin batera”.*

Gure galdera da ea nor den “pertsona aditu independente” bat eta nork izendatuko duen. Horrez gain, diruzkoak ez diren zenbait ekarpenetarako, betebeharrak hori garestiegia atera liteke (ekipamendu informatikoekin, esaterako).

15. art. Patroien kargua

Lehendabizi, artikuluko honen 4. artikulua ezartzen du Patronatuan pertsona juridikoak ordezkatzeko dituztenak postu iraunkorra izango dutela. Gure ustez, gerta daitezke bat-bateko arrazoiengatik karguari utzi behar izatea, beraz, artikuluko honek, ordezkari hori iraunkorra izaten “saiauko” direla jarri beharko luke.

Bigarrenez, 5. atalak honako hau dio: *“patroien eginkizuna bere gain hartzeko deitzen dutenaren izenean aritu ahalko da patroia ordezkatzeko dagokion pertsona, edo patroiak berariaz izendatzen duena”.* Gure ustez, kargu hori duenarekin alde aurretik izendatzeko akordioa egin beharko da beti.

Azkenik, 6. atalean, Patronatuak, izendatzeko akordioa hartzen denetik sei hilabetera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari bere kideen izendatzea jakinarazi beharko diola

esaten da, eta *“Erregistroak inskribatuko dituela, eta hala badagokio, epe hori ez duela bete ere jasota utziko duela”*.

Gure ustez, *“hala badagokio”* adierazpena kendu beharko litzateke, eta horren ordeztu hau jarri: *“justifikatutako arrazoirik ez balego”*, izan ere, jakinarazpena hainbat arrazoiengatik atzera daiteke.

16. art. Patronatuko kideek onartzea eta uko egitea

Lehendabizi, 2.d) atala honela idaztea iradokitzen dugu:

“2.- Honela onar daiteke:

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan fundazioaren Patronatuaren aurrean izendatzea onartu duela egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztuz. Ziurtagiri hori, fundazioko idazkariak egingo du, eta bere sinadura notario bidez egiaztatuko da, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko funtzionario batek legezkatuko du, edo langile baimendu batek, Eusko Jaurlaritzaren lurraldeko edozein erregistrotan, edo “Zuzenean” zerbitzuaren lurralde-bulegoetan”.

Espedienteak arinago bideratzeko aukera ematen duen hobekuntza bat dela uste dugu. Halaber, interes orokorreko helburuak eta baliabide gutxi dituzten fundazio txikiei lana errazten die.

Bestalde, 3. atalak hau dio: *“Patronatuko kidea den pertsona juridikoa ordezkatzeko duen pertsona fisikoa izendatzeko eta onartzeko, aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak onartu beharko ditu. Ez da nahitaezkoa izango onarpen hori inskribatzea edo Babesletzari aurkeztea, ikuskatzeko helburuak direla medio Babesletzak egiaztatzea eskatzen ez badu salbu. Nolabaiteko kontraesana ikusten dugu artikulu honek Patronatuko kideen onartzea eta uko egitea arautzen duen zehaztasunaren eta ez inskribatzeko aukera horren artean.*

17. art. Patroiaren doakotasuna

Hauxe ezartzen da: *“sortzaileak kontrakoa ezartzen ez badu, Patronatuak ordainsaria ezar diezaietke patroiei fundazioan bere eginkizunetatik kanpo ematen dituzten zerbitzuen truke. Erabaki hori legez ezartzen den epearen barruan jakinarazi beharko dio Babesletzari”*.

Gure ustez, aipatzen den garapen-arauaren zehaztugabetasunak ziurtasunik eza eragiten du, eta komenigarria izango litzateke Legeak berak epe hori finkatzea.

18. art. Eskumenak eskuordetzea eta ahalordetzeak

Artikuluaren hasieran hau dio: *“Patronatuak bere kide bati edo gehiagori eskuordetu ahalko dizkie bere eskumenak, estatutuek berriaz debekatzen badute izan ezik. Patronatuko kide bati baino gehiagori eskuordetzen badizkio, batzorde betearazle edo delegatu bat edo batzuk sortuko dira, eta batzorde horiek fundazioaren estatutuetan arautu beharko dira”*.

Batzorde horiek hobeto eratuta egon beharko luketela uste dugu, beraien funtsezko eginkizunak zehaztuta, eta Patronatuak onartutako barneko funtzionamendu-arautegi baten bidez arautuko direla esan beharko litzateke, kapital-sozietateetan egiten eta orain arte indarrean egon den arautegian ezartzen den moduan.

Gero, eskuordetu ezin diren zenbait eginkizun aipatzen dira, eta hori kontuan hartuz, ia ezer ezin dela eskuordetu esan dezakegu. Horien artean, jarduera-plana eta estatutuen aldaketa daude. Bi kasuetan, kontuetarako xedatzen den moduan, onartzea ez litzatekeela eskuordetu behar uste dugu.

19. art. Beste organo batzuk

Kudeaketa arrunta gerentzia baten esku utz daitekeela ezartzen da, eta gerentzia horren izendatzea eta kargu-uztea Babesletzari jakinarazi behar zaizkiola. Horrez gain, kudeatzaileari emandako botereak Fundazioen Erregistroan erregistratu beharko dira.

Arraroa iruditzen zaigu aurreikuspen hori, eta ez dugu ulertzen zer ekarpen egiten duen, kudeatzailea nor den jakinaraztea eskatzen baitu, baina ez ordea erregistratzea (bere botereak, berriz, bai).

20. art. Patroiek kargua uztea

Patroiek kargua uzteko arrazoiaren artean hau dago: "*kargua Lege honen 19. artikuluan ezarritako arduraz ez betetzea, ebazpen judizialean hala aitortzen bada*" (1.d. atala). Gure ustez 19. artikulua hor aipatzea ez da zuzena, eta 22. artikulua aipatu beharko litzateke (Patroien erantzukizuna).

21. art. Patroiak ordezkatzeta eta kargua kentzea

Lehen atalak ezartzen du patroiak estatutuetan ezarritako moduan ez badira ordezkaten, Fundazioen Babesletzak hau egiteko eskumena izango duela: "*fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organo behin-behinean osatzen duten pertsonak edo pertsona izendatzeko, estatutu-aldaketa hori gertatu arte*". Halaber, Patronatuak fundazioa berriro ez badu osatzen, Babesletzak bere kabuz osatu ahalko du patroia kopurua, eta bideragarria ez dela ikusten badu, fundazioa desegitea eskatu ahalko du.

Babesletzaren protagonismo handiegia ikusten dugu fundazioen bizitzan. Batzuetan patroia egokia bilatzeko denbora behar da, eta ez dugu uste komenigarria denik justifikatu gabeko presioa izatea. Horrez gain, Babesletzaren esku hartzea justifikatu beharko litzateke, epeari, interes publikoko arazoiei eta bestelakoei dagokienez. Bestalde, esku hartze hori "salbuesenez" gertatuko dela gaineratuko genuke.

22. art. Patroien erantzukizuna

Lehendabizi, hau ezartzen da: "*Patronatuko kideek ordezkari leial baten arduraz bete beharko dute kargua*". Gure ustez, arduraren deskribapen zehaztugabea da, gainerako artikuluetan eskatzen den erantzukizun-maila handia kontuan hartzen badugu.

Halaber, urteko kontuak Fundazioen Erregistroan "behar den epean" ez aurkezteak (15 egun baliodun onartzen denetik, Lege-aurreproiektuaren 32. artikulua ezartzen duen moduan) behar bezalako arduraz ez aritzea ekartzen du. Berriro diogu epe hori ez dela nahikoa, bai Erregistroa ixteko bai patroien arduragabekeria aitortzeko.

23. art. Akordioak hartzea

Artikuluak hau dio: *“berariazko erregulaziorik egon ezean, administrazio-prozedurari buruzko legedian ezarritakoari jarraituko zaio”*.

Fundazioak erakunde pribatu eta babesgabeak direla kontuan hartuta, zalantzak ditugu kasu honetan ordezko arautegia administrazio-prozeduraren legedia izan behar den ala ez.

27. art. Jaraunspenak eta dohaintzak

Artikulu honen 1. atalak honela dio: *“patroiak Kode Zibilaren 1024. artikuluan eta, hala badagokio, foru arautegian aipatzen diren ekintzengatik gertatutako inbentario-onuraren galeraren erantzuleak izango dira fundazioaren aurrean”*. Gure ustez, aipatutako ekintzak¹ hitzez hitz jaso beharko lirateke artikulu honetan, erantzukizun handia ekartzen dutelako.

Horrez gain, 2. atalak hau ezartzen du: *“Zamak dituzten legatuak edo kostu bidezko dohaintzak onartzen badira, eta jaraunsi, dohaintza edo legatuei uko egiten bazaie, Patronatuak Babesletzari jakinarazi beharko dio, hurrengo hamar egun balioduneko epean, eta Babesletzak dagozkion erantzukizun-egintzez baliatu ahalko da patroien kontra, haien ekintzak fundaziorako kaltegarriak badira, Lege honek ezarritako baldintzen arabera”*.

Gure ustez, diskrezio tarte handiagoa eman behar zaie patroiei, Babesletzaren kontrola handiegia baita.

28. art. Jarduera eta funtzionamendu printzipioak

Fundazioen akordio-printzipioen artean hau dago: *“jokabide-kodeetan eta funtzionamenduko jardunbide egokietan ezarritako zuzentarauak betetzea”*. Orokortasun horrek ziurgabetasun juridikoa eragiten duela uste dugu, eta kode eta jardunbide egoki horiek “estatutuetan erabakiko direla” gaineratu beharko litzatekeela.

29. art. Diru-sarrerak eta errentak lortzea eta haien erabilera

Lehendabizi, artikulu honen 2. atalak hau ezartzen du: *“Gutxienez, urteko ekitaldiaren soberakinaren % 70 bideratuko beharko da fundazioaren helburuetarako, diru-sarrera horiek lortzeko egindako gastuak kendu ondoren, eta emaitza eta sarrera horiek lortu diren ekitaldi hasieraren eta ekitaldi hori itxi eta hurrengo hiru urteen arteko epean aplikatuko dira”*.

Batzorde honentzat hiru urteko epea oso epe laburra da (Estatuko arautegian bost urtekoa da). Ondarea urria bada baina lanak gehiago irauten badu, ez dago arrazoirik ordaintzera eta ekintza laburragoa izatera behartzeko. Horrez gain, epea luzeagoa bada, fundazioak bere sarrerak presio txikiagoarekin suspertzeko moduak bilatzeko aukera izango du.

Bestalde, laugarren atalak ezartzen du zuzkidura edo erreserbak handitzeko bideratu beharko direla, Patronatuaren akordioaren arabera, artikulu honen bigarren paragrafoan ezarritakoa betetzeko bideratu behar ez diren gainerako errentak edo sarrerak, administrazioaren gastuak kendu ondoren, eta horren gehieneko ehuneko araudiaren arabera ezarriko dela.

1. Kode Zibilaren 1024. artikulua hau ezartzen du: *“Jaraunseleak inbentario-onura galduko du:1. Bera jakinaren gainean egonik, jaraunseleko ondasun, eskubide edo akzioen bat ez badu inbentarioan sartzen.2. Zor eta legatu guztien ordainketa amaitu baino lehen, jaraunseleko ondasunak besterentzen baditu epaileren edo interesdun guztien baimenik gabe, edo saldutakoaren prezioa ez badu erabiltzen baimena ematean agindutako moduan”*.

Argitu behar da aplikatu gabeko errenta edo sarrerengatik gertatutako zuzkiduraren edo erreserben gehikuntzaren gehieneko ehunekoari buruz ari den ala ez. Horrez gain, araudiaren bidez ez dela ezarri behar uste dugu, funts horien kudeaketari autonomia kentzen diolako.

31. art. Kontabilitatea

Bigarren ataleko bigarren paragrafoa honela osatzea proposatzen dugu, argiagoa eta egokiagoa izan dadin, Fundazioen abenduaren 26ko 50/2002 Estatu Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera:

“Urteko kontuek, balantzea, emaitzen kontua eta txostena barne hartzen dituztenek, batasun bat osatzen dute, eta argi idazteaz gain, fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak leialki erakutsi beharko dituzte.”

32. art. Urteko kontuak aurkeztea, uztea eta jakitera ematea

Artikulu honen 1. atalak hau dio: *“urteko kontuak onartu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan, behar bezala sinatutako kontu horiek onartzeko eta emaitzak aplikatzeko hartutako akordioen ziurtagiria, eta hala badagokio, kontu bateratuak, aurkeztuko ditu fundazioaren Patronatuak, Fundazioen Erregistroan uzteko...”*. Gure ustez, epe laburregia da (kapital-sozietateetan hilabete bat ematen da), batik bat fundazio guztiek ez dutelako berezko administrazio-egiturarik hain zorrozki betetzeko.

33. art. Kontu-ikuskaritza

Lehendabizi, lehen atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan izena emandako fundazio guztien urteko kontuek kanpoko ikuskaritza bat izango dutela esaten da, ekitaldia itxitakoan, zenbait kasuren barruan daudenak izan ezik. Ez dugu ulertzen fundazioak justifikatu beharreko salbuespen negatiboa. Gure ustez, egokiagoa izango litzateke ikuskaritza bat noiz den nahitaezkoa adieraztea.

Kanpoko ikuskaritza ez egiteko kasuen artean hau dago: *“Enpresa-jarduerak ez egitea, edo kideen erantzukizuna mugatuta duen edozein sozietatetan % 5tik beherako partaidetza izatea”*. Fundazioaren helburuekin lotutako enpresa-jardueretan % 5etik gorako partaidetza izateagatik kontu-ikuskaritza egin behar izatea ez dirudi justifikatuta dagoenik. Gure ustez, eragin ekonomiko handiagoa izan behar du (partaidetza handiagoa, edo fundazioaren diru-sarreretan % 20tik gorako eragina izatea, esaterako). Fundazioen gizarte-ekintzaren autofinantzazioa sustatu behar da gure ustez, eragozpen handirik jarri gabe.

Aipatutako salbuespenaren beste kasu hau da: *“onuradunen ordaindutako zerbitzuen bolumena edo kopurua fundazioak doan egindakoena baino askoz ere handiagoa ez izatea”*. Ez dugu ulertzen puntu hau; argiago idatzi behar da.

Gero, 2. atalak ezartzen du aipatutako baldintzak bete arren, zenbait kasuren barruan dauden fundazioen kontuak ere ikuskatuko direla.

- Kasu horien artean dago honako hau: *“fundazioaren egoera-balantzearen aktiboaren partiden balio osoaren % 50 gutxienez, erakunde publikoek emandakoa izatea”*.

Gure ustez, fundazioaren diru-sarrerak kuantifikatu nahi badira, erakunde publikoetatik etorritako funtsen zenbateko bat finkatu beharko litzateke, eta ez ehuneko bat. Fundazio askok (garapenerako lankidetzak eta hezkuntzako guztiak esaterako) funts publikoak behar dituzte, eta batzuek oso baliabide gutxi dituzte. Ikuskaritza baten kostua kontuan hartuz, ikuskaritza egitera behartzeko, jatorri publikoko funtsen gutxieneko zenbateko bat finkatu beharko litzatekeela uste dugu.

- Gero, beste kasu bat aipatzen da: *“Lege honen 33. artikuluan aipatzen den kontratuaren edo kontratuen prezioak ekitaldiko gastu guztien % 15 baino gehiago ekartzen badu”*. Artikulu hori aipatzea gaizki dagoela eta balorazio egokia egiteko argitu beharko litzatekeela uste dugu.
- Halaber, kanpoko kontu-ikuskaritza egingo zaie *“Babesletzaren iritziz, egoera bereziak badaude” Kasu honetan, Babesletzak horren arrazoia jasotzen den justifikazio bat egingo du, eta kontuen ikuskaria izendatuko du*. Ez dugu ulertzen derrigortasun hori, eta gure ustez, fundazioari berari bere kabuz erabakitzeke aukera emango beharko litzaioke, edo bestela, “egoera bereziak” zer diren argitu beharko litzateke.
- Bestalde, Patronatuak borondatez gehiengo soilaz hala erabakitzen badu, ikuskaritza egitera behar dezakeela jasotzen da. Gure ustez, ezarri beharko litzateke borondatezko ikuskaritza nahitaez egin behar ez izatea, eta beste arrazoi batzuegatik egin behar izatea. Bestalde, ez luke gehiengo mota aipatu behar; egokiagoa deritzogu hori estatutuetan arautzea, eta ezer ez bada esaten, botoen gehiengoak hartuko duela erabakia.

Azkenik, artikulu honen 4.atala honela osatzea iradokitzen dugu:

“4. Fundazioek urteko kontuekin batera kanpo-ikuskaritza aurkeztu beharko dute lege honetan ezarritakoaren arabera nahitaezkoa bada, edo borondatezkoa bada, hala egitea erabakitzen badu. Artikulu honetan kanpoko ikuskaritza aurkeztu behar ez izateko ezarritako baldintzak betetzen badira, ziurtagiri batean adierazi beharko dute kontu horiekin batera”.

Berrito diogu kontrol eta baldintza zorrotzegeiak ezartzen direla nahitaezko ikuskaritzan, beste arauetan egiten denaren aldean.

35. art. Nahitaezko liburuak

Hau esaten da: *“fundazioek akta-liburu bat izan beharko dute, eta liburu horretan, Patronatuaren eta fundazioaren gainerako organoen bileren akta guztiak jasoko dira. Akta horiek, estatutuetan ezartzen den moduan legeztatu beharko dira eta hori egon ezean, idazkariak sinatu eta Presidenteak oniritzia eman beharko dute”*.

Xedapen hori argiagoa izan beharko litzateke. Zehaztu beharko luke “legeztatu” beharko direla dionean sinatu behar direla esan nahi duen ala ez.

36. art. Autokontratazioa

Lehendabizi, hau ezartzen du: *“Patronatuko kideek edo haren ordezkariak ezin izango dute fundazioarekin kontratatu, bere izenean edo hirugarren pertsona baten izenean, Babesletzak baimenik ez badu, legez ezartzen den epean”.*

Kasu honetan, etorkizuneko arautegiak ez lirateke baztertu behar, eta egokiagoa izango litzateke ezartzea Patronatuak, bere arauen arabera, kontratazioa baimendu beharko duela, gastuen partidetan zenbateko handiak badira.

Ondoren, kontratazio hori, fundazioaren helburuak lortzeko izango dela eta merkatuaren baldintzen arabera egingo dela esaten da, *“fundazioaren kontratazioaz arduratzen den pertsonaren edo organoaren alde aurretiko akordioaren bidez”.* Gure ustez, argiago azaldu beharko litzateke hori, eta zer helburu bilatzen den ere azaldu.

Azkenik, baimena emateko espedientea Fundazioen Babesletzak ebatziko duela ezartzen du, arrazoia azalduz eta interes-gatazkarik egon ez daitezen kontuan hartuz. Ebatzitzat hartuko da eskaera aurkezten denetik hiru hilabete igarotakoan erantzunik ez bada jasotzen.

Batzorde honen ustez, Babesletzak aurretik esku hartu behar duen kasuetan, epearen arintasuna bermatu behar da, eta kasu honetan, edozein erakunderen bitzita ekonomikoan hiru hilabeteko epea gehiegizkoa da.

38. art. Bat-egitea

Hirugarren atalak hau ezartzen du, zenbait kasutan: *“bat egiteko Babesletzak aurretik onartu beharko du, eta ebazpen ziodunaren bidez bakarrik aurka egin ahalko dio, hiru hilabeteko epean, baimen-eskaera jakinarazten den egunetik hasita”.*

Aurreko 36. artikuluan azaldutakoa errepikatzen dugu, izan ere, gehiegizko epea da. Babesletzaren baimena eskatzea berria da, eta funtsezkotzat hartzen bada, arinago egin beharko litzateke.

39. art. Zatitzea

Hau esaten da: *“zatitzea Patronatuaren akordio ziodunaren bidez egin beharko da, eta Babesletzak onartu beharko du”.*

Gure ustez, ez da aurretiko baimena; berrespena da (fundazioaren desgitearen kasuan gertatzen den moduan, 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera), eta baimena izango balitz, Babesletzaren gehiegizko kontrola ekarriko lukeela uste dugu. Argiago jaso beharko litzatekeen kontua da.

42. art. Likidazioa eta desagertzea

Ezarritakoaren arabera, fundazio batek hiru urteko epea du likidatzeko, eta epe hori igarotakoan, Babesletzak agintari judizialak esku hartzea eska dezake. Horrez gain, likidazioak eskritura publikoaren bidez egingo dira, eta akordioa Euskal Autonomia Fundazioen Erregistroan gordeko da, Babesletzak bere txostena egin ondoren. Batzorde likidatzaileak, edo hala badagokio, Patronatuak, Fundazioen Erregistroa joan beharko du, eta bestelako agiriez gain, onartutako eta Babesletzak berretsitako likidazio-balantzea aurkeztu.

Berrero ere diogu arau horrek protagonismo handiegia ematen diola Babesletzari. Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu aurreikuspenik ez dagoenez, ez duela aukerarik hartutako likidazio-akordioen kontra egiteko.

43. art. Likidatzaileak. Eskumenak

Artikulu honetan hau ezartzen du aurreproiektuak: *“batzorde likidatzaileak telematikoki eta berehala jakinarazi beharko dizkio Erregistroari egindako eragiketak”*. Betebehar horri gehiago zehaztu eta argiago jaso beharko litzateke.

50. art. Babesletzaren eginkizunak

Gogoeta Orokorretan Babesletzari emandako eginkizunari buruz adierazitakoaz gain, artikulu honen 6. atalak arautzen duen *“fundazioak zaintzeko”* eginkizunari dagokionez, gure ustez, honela osatu beharko litzateke *“fundazio bakoitzak helburuak bete ditzala arduratzea”* eskatzen duen eginkizuna (6.a. puntua):

“a) Fundazio bakoitzak helburuak bete ditzala arduratzea, sortzaileak adierazitako edo estatutuetan jasotako borondatearen arabera”.

Halaber, ondoren, honako hau dio: *“Babesletzak, erregistroan erregistratu aurretik, nahitaez jakinarazi eta onartuko ditu fundazioaren helburuak eraketa-proiektuetan eta estatutuak aldatzekoetan, lege honek araututako baldintzen arabera, eta baita bat-egite, zatitze, aldatze eta desagertze proiektuetan ere”*. Gure ustez horrela izan behar badu, eskumen horietarako epe bat finkatu beharko litzateke, eta horrez gain, zioak jaso beharko lirateke txostenean.

Zazpigarren atalean arautzen den fundazioen ikuskatzeko eginkizunari dagokionez, ez dakigu inspektore talde bat sortuko den eta berariazko prozedura-arautegi bat aterako den, arauak ez baitu argitzen.

51. art. Babesletzaren esku hartzea eta jarduerak egiaztatzea

Babesletzak, irregulartasunen zerrenda baten aurrean, jarduerak egiaztatzeko espediente bat hasiko duela ezartzen da, eta espediente hori, *“Legea garatzen duen Arautegian ezarritako prozeduraren bidez”* egingo dela. Esan gabe doa hori ez dela abian jarriko arautzen duen arautegi bat izan arte, segurtasun juridikoaren onerako, baina agian argiago jaso beharko litzateke.

Artikulu honen 2. atalak dio espedientea Babesletzaren ebazpenaren bidez amaituko dela, eta kasuak ez badira egiaztatzen, neurri zuzentzaileak hartzen badira, edo kasuak frogatuta geratu direla ezartzen duen ebazpena ematen bada, artxibatuko dela. Horrela, dagokion fundazioa hurrengo Urteko Ikuskapen Planean sartzea erabakiko du.

Gure ustez, zuzenagoa izango litzateke aipatutako ikuskapen planean sartzea *“erabaki dezakeela”* ezartzea, testuan ez delako hain zehatza.

52. art. Babesletzaren esku hartzea fundazioen irregulartasun larrien aurrean

Hirugarren atalak hau ezartzen du: *“Babesletzak horren berri eman gabe esku hartu ahalko du bereziki larriak diren kasuetan, eta Patronatuaren eskumenak kendu eta bere gain hartuko ditu. Horrez gain, Epaileari berehala jakinaraziko du zer erabaki hartu duen...”*.

Funtsezkoa da jakitea zer diren “kasu bereziki larriak”, eta horrez gain, “horren berri eman gabe” esan ordez, “aldez aurretik jakinarazita” jarri beharko litzateke.

53. art. Babesletzaren baimenak. Administrazioaren isiltasuna

Hiru hilabete igarotakoan berariazko ebazpenik egon ezean Babesletzaren baimenak ez onartuzat hartuko direla ezartzen da.

Gure ustez, herri administrazioen gardentasunaren, eraginkortasunaren eta arintasunaren onerako, emandako epean (luzeegia), jasotako eskaerak aintzat hartu beharko lirateke, hau da, isiltasun positiboa izan beharko luke.

57. art. Erregistroaren eginkizunak

Erregistroaren eginkizunen artean hau dago: *“urteko kontuen gordailatzea eta Patronatuak onartu duela egiaztatzen duen ziurtagiria jasotzea, aurkeztutako agiriak legeak eskatutakoak direla egiaztatzeko. Patroien botoaren zentzua jasoko da, patroiek estatutuen bidez araututako aurrerapenarekin hori egiteko beharrezko informazioa izan ez badute salbu, eta abstenitu edo kontrako botoa eman duten patroiak identifikatuko dira”*.

Positibotzat jotzen dugu akordioak kontrako botoaren zioak jasotzea, patroiak azaltzea erabaki badu. Hala ere, artikulua honetan xehetasun gehiegi ematen dira, eta ez dugu hori egiteko arrazoirik ikusten.

60. eta 61. artikulua Fundazioen Euskal Kontseilua

Fundazioen Euskal Kontseilua, Herri Administrazioaren kontsultarako, aholkularitzarako eta hedatzeko kide anitzeko organoa, eginkizun hauen sortu da fundazioen euskal esparruan:

- a) Arautegiari buruzko aholkuak eta informazioa ematea.
- b) Herri administrazioei proposamenak egitea.
- d) Fundazioak sustatzea eta bultzatzea.
- e) Indarreko xedapenek ematen dizkioten gainerakoak.

Bere irizpen batzuetan adierazi dugunez, ez dugu uste komenigarria denik kontsultarako administrazio-organoa ugaritzea, izan ere, kostua ekartzen dute, eta askotan, oso zaila da justifikatzea elkarrizketa kolektiborako gaitasuna duten elkarteak daudelako jadanik.

63. art. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren fundazioen araubide juridikoa

Gogoeta orokorretan sektore publikoaren fundazioetako langileei buruz adierazitakoa berretsiz, artikulua honen lehen atala testu honekin osatzea gomendatzen dugu:

*“Langileak hautatzekom dagokion deialdiaren berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraituko zaie.
Halaber, kontratazioa egiterakoan, publizitate, lehia eta objektibotasun printzipioak kontuan hartuko dira, egin beharreko jardueraren izaera printzipio horiekin bat etortzen bada salbu”.*

64. art. Sektore publikoaren fundazioen betebeharrak

Artikulu honen bi paragrafoetan baldintza bera errepikatzen da, ezer berririk gehitu gabe. Agian egokiena biak testu bakar batean bateratzea izango litzateke.

Bestalde, 2. atalean dio fundazio horiek *“egiten dituzten kontratazioek lizitazioak ikusteko askatasun printzipioari, prozeduren publizitate eta gardentasun printzipioari, eta bazterkeriarik ezeko eta berdintasun printzipioei jarraitzen dietela bermatu beharko dituztela”*. Gure ustez, egokiagoa izango litzateke kontratazio horiek sektore publikoaren kontratuen arautegiari jarraitu beharko diotela adieraztea².

65. art. Banku fundazioak

Mota honetako fundazioak Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen abenduaren 27ko 26/2013 Estatu Legean arautu ziren lehen aldiz, eta oinarrizko legedia dutenez, han ezarritako arauak jarraitzen diete. Hauxe ezartzen da 33. artikuluan: *“Banku fundazioek lege honetan ezarritako araubide juridikoari jarraituko diote, eta hori egon ezean, Fundazioen abenduaren 26ko 50/2002 Legeari edo aplikatzekoa den autonomiako arautegiari”*.

Horrela, Fundazioen abenduaren 26ko 50/2002 Legean mota horretako Fundazioei buruzko zortzigarren xedapen gehigarria sartu zuten: *“Banku fundazioek Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen 26/2013 Legean ezarritakoari jarraituko diote”*.

Halaber, Justizia Ministerioak jendaurrean ikusgai jarri duen fundazioen Lege-aurreproiektuaren zirriborroan kanpoan uzten dira berriaz bederatzigarren xedapen gehigarrian, eta aurretik aipatutako 26/2013 legera jotzen dute.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak, bere eskumenez baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen Lege aurreproiektuaren kontsulta-prozesua hasi du berriki, eta 68. artikuluan honela dio:

2. Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina kontuan hartzen badugu, printzipio horiez gain, sektore publikoaren fundazioek aplikatzen dizkieten kontratazioari buruzko arautegia errespetatu beharko dute. Horren adibideetako batzuk:- Erregulazio harmonizatuari atxikitako kontratuetan, publizitatea, berdintasuna eta lehia indartsuago bermatzen dira kontratuen esleipenean.- Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina aplikatzen den kontratu guztiek zenbait printzipiori jarraitu behar diete (kontratuen beharra eta egokitasuna, 22. art.; hitzartzeko askatasuna; 25. art.; berdintasuna eta gardentasuna; 139. art.; konfidentzialtasuna, 140. art.). Horrez gain, kontratuak eskaintzarik merkeenari esleitzen diotela bermatu beharko da (190. eta 191. art.).- Kontratazioaren arloko administrazio-errekurtso berezia erregulazio harmonizatua duten kontratuetan aplikatzen da (40. eta 49. art.).

“1.- Beraien eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoan nagusiki garatzen dituzten banku fundazioek lege honetan, aurrezki kutxen eta banku fundazioen abenduaren 27ko 26/2013 Legean, eta horien gehigarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den fundazioei buruzko arautegian ezarritako araubide juridikoari jarraituko diote.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta aurrezki-kutxa izatetik banku-fundazio izatera pasa diren fundazioek lege honetan banku-fundazioetarako ezarritako araubide juridikoari jarraituko diote, eta gehigarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den fundazioei buruzko arautegiari.”

Halaber, Lege-aurreproiektu honen Lehen Azken Xedapenean Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen indarreko legediaren aldaketa bat sartzen da (12/1994. Legea) aplikazio-esparruari buruzko 2. artikuluan, beste atal batekin. Honela dio: *“Beraien eginkizunak Euskal Autonomia Elkartearen nagusiki garatzen dituzten banku-fundazioek eta lurralde esparru horretan egoitza soziala duten eta aurrezki-kutxa izatetik banku-fundazio izatera pasa diren fundazioek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko/2014 Legean ezarritakoari jarraituko diote”.*

Horregatik guztiagatik, aukerak eta segurtasun juridikoa kontuan hartuz, Irizpen honen Lege-aurreproiektuan **65. artikulua kentzea** eta testu hau duen **Xedapen Gehigarria gaineratzea** proposatzen dugu:

“Xedapen gehigarria

Banku Fundazioek Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko legedian ezarritakoari jarraituko diote; hori egon ezean, Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen 26/2013 Legeak ezarritakoari, eta gehigarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den fundazioei buruzko arautegiari.”

V.- ONDORIOAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearentzat egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege-aurreproiektua”* bideratzea, kontsultarako organo honek egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Bilbon, 2015eko otsailaren 25ean

Presidentearen O.E
Francisco José Huidobro Burgos

Idazkari Orokorra
Emilia Málaga Pérez

